Los precios vendrán determinados en la adjudicación del servicio, previamente aprobados por el Ayuntamiento. Anualmente, el Ayuntamiento actualizará dichos precios según los incrementos establecidos en las condiciones de adjudicación del servicio.

Artículo 18. Financiación.

La financiación de los apartamentos en alquiler y vivienda comunitaria correrá a cargo de:

— El Ayuntamiento de Tolosa.

— La persona beneficiaria deberá participar en la financiación del servicio, aceptando el compromiso firmado de abonar la cantidad que se establezca en la resolución de Alcaldía de concesión de la plaza, como requisito imprescindible para iniciar la prestación del Servicio.

Artículo 19. Abono de la persona usuaria.

La persona usuaria deberá abonar un porcentaje del coste del servicio que será calculado teniendo en cuenta su capacidad económica. Para la fijación de dicha capacidad se tendrán en cuenta la renta y el patrimonio del solicitante.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak ezkutatzu edo horren gainean gezurra esanez gero, eskaera artxibatu egingo da edo zerbitzua iraungi egingo da, eman bada; gertakari horiek, halaber, erantzukizunak eragin ditzakete. Udalak laguntzarik eman badu, edo zerbitzuaren prezioaren zati bat ordaindu badu, diru-laguntzak emateko udal ordenantzan araututako diru-laguntzak itzultzeko prozedura abiatuko da.

Zerbitzuen erabiltzaileek, eta hala badagokio, haien legezko ordezkariak, erakunde kudeatzaileari jakinarazi beharko diete errentan edo familia-unitatean gertaturiko edozein aldaketa edo haiek ordaindu beharreko zenbatekoan eragina izan dezakeen beste edozer. Jakinarazpen hori egiteko egoera aldaketa gertatu den unetik zenbatzen hasita 30 egun izango dituzte.

Ordaindu beharreko zenbatekoa pertsona erabiltzaile bakoitzeko urtero ofizios berrikusi beharko du erakunde kudeatzaileak, edo pertsona horren edo haren ordezkariak hala eskatuz gero, zenbateko hori aldatzea eragin dezaketen aldaketak gertatzen direnean eskakizunetan edo egoeretan.

20. artikulua. Udal ekarpena bermatzea.

Plazaren prezioa osorik ordaintzen ez duten pertsona erabiltzaileek Tolosako Udalarekin duten zorra onartzen dutela jasotzen duen dokumentua sinatu beharko dute, prezioaren eta ordaindutakoaren artean dagoen aldea ordaindu beharko dute, hain zuzen ere.

Zorra onartzen duen konpromisoa, edozein kasutan, sinatu egingo da dirua ingresatu baino lehen, eta ezezkoa adieraziz gero, azken horri uko egiten zaiola ulertuko da.

Konpromiso dokumentua eta zorra onartzeko dokumentua zerbitzua erabiltzen duen pertsonak zein, hala badagokio, ordezkari legalak sinatu beharko dute.

Edozein kasutan, Tolosako Udalak bermea ematea eskatu ahalko du, zuzenbidean onartutako edozein modutan, onartutako zorra ordainduko dela bermatzeko. Zorra onartzeak baldintzatuko du ondasun propioak transmititzea, eta pertsona erabiltzaileak bere gain hartu beharko du ondasun horiek irabazien truke edo kostubidez ez eskualdatzeko betebeharra, eta horien gainean karga edo zergarik ez jartzekoa, eta ondasun eskubideei uko ez egitea harik eta zorra ordaindu arte; horrez gain, zor den zenbatekoa osorik ordaindu arte jarraituko du ez betetzeak, salbu eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren iriziz araudi honetan jaso ez den aparteko egoeraren bat bada.

Hortaz, udalak behar bezala informatu beharko du eta hartutako konpromisoak ulertu direla bermatzen saiatu beharko du.

Zorra onartzeak aldi baterako izaera izan ahalko du ondarena betearazi arte; egin behar izanez gero, pertsona erabiltzailea kaltetuko ez duten baldintza eta une egokietan egin beharko da.

Hala ere, zerbitzua emateari uzten zaionean kobratuko da zorra, egoera ikusita Tolosako Udalak une hori baino lehen edo ondoren kobratzea eskatzen badu izan ezik.

Zorra kobratzeko obligaziodunaren ondasunen ondare exekuzioari ekin behar bazaio, zorra ez da etxebizitzaren gainean ziurtatuko erabilera propioarako beharrezkoa denean edo ezkontidearentzat eta beste familia unitaterik osatzen ez duten seme-alabentzat egoitza bakarra bada; hala ere, etxebizitza enbargatu edo tratatu ahalko da.

La falsificación u ocultación de datos sobre la capacidad económica dará lugar al archivo de la solicitud o a la extinción del servicio, si éste ya ha sido concedido, sin perjuicio de las responsabilidades que pudieran derivar de estos hechos. En el caso de que el Ayuntamiento haya aportado alguna ayuda o bonificado parte del precio de algún servicio se iniciará el correspondiente procedimiento de reintegro de subvenciones regulado en la ordenanza municipal de concesión de ayudas.

Las personas usuarias de los servicios y, en su caso, sus representantes legales, están obligadas a poner en conocimiento del órgano gestor, en el plazo de 30 días desde que se produzca, cualquier variación en la renta, patrimonio o número de personas de la unidad familiar y cuantas circunstancias puedan tener incidencia en el establecimiento de la cuantía a abonar por las mismas.

La cuantía a abonar por cada persona usuaria deberá ser revisada anualmente de oficio por el órgano gestor o a solicitud de dicha persona o de su representante, cuando se produzca variación en cualquiera de los requisitos y circunstancias que puedan dar lugar a la modificación de la misma.

Artículo 20. Aseguramiento de la aportación municipal.

Las personas usuarias que no abonen la totalidad del precio de la plaza deberán suscribir un documento de reconocimiento de deuda a favor del Ayuntamiento de Tolosa por la diferencia existente entre la cuantía del precio y lo efectivamente satisfecho.

El compromiso de reconocimiento de deuda deberá formalizarse en todo caso y con carácter previo al ingreso, entendiéndose, en caso de negativa, que se renuncia a este último.

Corresponderá suscribir tanto el documento de compromiso como el de reconocimiento de deuda a la persona usuaria del servicio o, en su caso, a su representante legal.

En cualquier caso, el Ayuntamiento de Tolosa podrá exigir la prestación de garantía, en cualquiera de las formas reconocidas en derecho, en orden a asegurar el pago de la deuda reconocida. El reconocimiento de deuda condicionará la transmisión de bienes propios, asumiendo la persona usuaria la obligación de no transmitir lucrativa u onerosamente los mismos, ni establecer sobre ellos cargas o gravámenes, ni renunciar a derechos de índole patrimonial mientras la deuda no sea saldada, determinando su incumplimiento la ejecución de la cantidad total pendiente de pago, salvo situaciones que a criterio del Departamento de Servicios Sociales tengan un carácter de excepcionalidad no contemplada en esta normativa.

El Ayuntamiento deberá, por tanto, informar adecuadamente y tratar de asegurar que se hayan comprendido los compromisos contraídos.

El reconocimiento de deuda podrá tener carácter temporal hasta que la ejecución patrimonial, de tener que hacerla, se haga en tiempo y en condiciones adecuadas que no perjudiquen a la persona usuaria.

El cobro de la deuda, sin perjuicio de lo previsto en el párrafo anterior, se hará efectivo cuando se deje de prestar el servicio, salvo que, atendidas las circunstancias del caso, el Ayuntamiento de Tolosa determine su exigencia en un momento anterior o posterior a dicho evento.

En el caso de que sea preciso recurrir a la ejecución patrimonial de los bienes del obligado al pago para el cobro de la deuda, aquella no se verificará sobre la vivienda cuando la misma sea necesaria para el uso propio o cuando constituya domicilio único del cónyuge y los hijos que no formen otra unidad familiar, sin perjuicio, en su caso, de la traba o embargo de la misma.

21. artikulua. Egoera bereziak.

Tratu txarrak jaso dituzten pertsonen kasuan edo beste edozein arrazoi dela medio egoitzatik berehala irteteko beharra duten eta dokumentaziorik aurkeztu ezin duten pertsonen kasuan, edo dokumentazio aurkeztu arren ostatu hauetan sartu aurretik ahalmen ekonomikoa kalkulatu ezin bada, ebazpenean kalkulaturako eta jakinarazitako zenbatekoa behin-behinekoa izango da, eta benetako ahalmen ekonomikoa kalkulatu ahal denean, ebazpen berria igorriko da eta atzeraeragina izango du.

VIII. KAPITULUA

ANTOLAKETA

22. artikulua. Pertsona Erabiltzaileen Azpi Komunitatea.

Araudi honetan araututako apartamentuetako eta etxebizitza komunitarioetako pertsona erabiltzaile guztiak Tolosako San Frantzisko kaleko Eraikin Publikoetako T-6 eremuan kokaturako Erabilera Anitzeko Apartamentuen Eraikinen pertsona erabiltzaileen azpi komunitatean integratuko dira.

Azpi Komunitate horren helburua eraikina modu zuzenean kudeatzea, erabiltzea eta gordetzea eta zaintzea izango da, eta bereziki, bertako elementuak eta zerbitzu komunak.

Udal korporazioak estatutuak onartuko ditu, emakidadunen proposamenez, eta azpi komunitateak egiten dituen bileretara bertaratu ahalko da.

Azpi Komunitatearen gobernuari araudi hau aplikatuko zaio eta bestela, Jabetza Horizontaleko Legearen arauak eta xedapen osagarriak.

Presidentetzak edo administrazioak zerbitzua ematen duen enpresari edozein bilera egiteko deialdia igorri beharko dio zortzi egun lehenago; jakinarazpen horretan bileraren eguna, ordua eta gai-zerrenda erantsi beharko du, eta enpresak bertan behar bezala ordezkaturako egoteko aukera izango du. Edozein kasutan, batzordeak zerbitzua ematen duen enpresari onartutako erabakien berri eman beharko dio.

Batzar Nagusiak kideen artean presidentetza hartuko duen pertsona izendatuko du, Jabetza Horizontaleko Legean aurreikusitako betebeharrak eta esleipenekin, araudi honekin eta Komunitatearen Estatutuekin kontraesan erori gabe.

Kudeatzaileak idazkari lanak egingo ditu bileretan. Pertsona erabiltzaileek osatutako Batzorde Nagusiek hartutako akordioei buruzko akta osatuko du, Akten Liburuan kopia beharko du eta pertsona bakoitzari kopia bat bidali beharko dio; horrez gain, horren gaineko ziurtagiriak emateko gaitasuna ere izango du.

23. artikulua. Administrazioa.

Administrazioa udalak kontratatuko du, azpi komunitatearen kontura, eta lan hauek izango ditu:

- a) Deialdia prestatzea, pertsona erabiltzaileen batzordearen saioen gai-zerrendarekin.
- b) Batzordearen saioaren aktak osatzea eta batzordekideei, Tolosako Udalari eta zerbitzua ematen duen enpresari erabakien berri ematea.
- c) Akta liburuak eta erkidegoaren gainerako dokumentuak gordetzea, eta dagozkion akordioen ziurtagiriak ematea.
- d) Eraikina, instalazioak eta zerbitzuak egoera onean egoatea bermatzea, eta horretarako beharrezko ohartarazpenak eta abisuak ematea.

Artículo 21. Situaciones excepcionales.

En el caso de personas en situación de maltrato o de otras situaciones que requieran de una salida urgente del domicilio y que no puedan presentar la documentación, o que aun presentándola no sea posible calcular su capacidad económica previamente al ingreso en estos alojamientos, el importe a abonar estipulado y comunicado en la resolución tendrán carácter provisional y una vez se pueda calcular la capacidad económica real, se dictará una nueva que tendrá carácter retroactivo.

CAPITULO VIII

ORGANIZACIÓN.

Artículo 22. Sub-Comunidad de Personas Usuarias.

Todas las personas usuarias de los apartamentos y de la vivienda comunitaria regulados en el presente reglamento, quedarán integradas en la Sub-Comunidad de personas usuarias del Edificio de Apartamentos Polivalentes situado en el Área T-6 «Edificios Públicos San Francisco» en Tolosa.

Esta Sub-Comunidad tiene como fin el garantizar la administración, el correcto uso y el mantenimiento y conservación adecuados del edificio y, en especial, de sus elementos y servicios comunes.

Los estatutos serán aprobados, a propuesta de la concesionaria, por la Corporación municipal, y aquella podrá asistir a las reuniones que celebre la Sub-Comunidad.

Al Gobierno de la Sub-Comunidad le será de aplicación el presente reglamento y subsidiariamente, las normas de la Ley de Propiedad Horizontal y disposiciones complementarias.

La Presidencia o la Administración deberá notificar a la concesionaria del servicio con 8 días de antelación la fecha, hora y orden del día de cada reunión, a las que podrá asistir debidamente representado. En cualquier caso, la Junta quedará obligada a dar traslado a la concesionaria del servicio de los acuerdos adoptados.

La Junta General designará entre sus miembros la persona que ejercerá la presidencia, con los cometidos y atribuciones previstos en la Ley de Propiedad Horizontal, en lo que no contradiga al presente reglamento y a los Estatutos de la Comunidad.

El administrador o administradora actuará de Secretario-a en las reuniones que celebre. Redactará un acta con los acuerdos adoptados de cada Junta General de personas usuarias, transcribiéndolas en el Libro de Actas y remitiendo una copia a cada una de ellas, teniendo facultad para emitir certificaciones sobre el contenido de las mismas.

Artículo 23. Administración.

La contratación de la Administración la llevará a cabo, a cuenta de la Sub-Comunidad, el Ayuntamiento y le corresponderán las siguientes atribuciones:

- a) Preparar la convocatoria con el orden del día de las sesiones de la Junta de personas usuarias.
- b) Levantar el acta de las sesiones de la Junta y notificar sus acuerdos a los miembros de la misma así como al Ayuntamiento de Tolosa y a la empresa concesionaria.
- c) Custodiar los libros de actas y demás documentación de la Comunidad y extender las certificaciones de los acuerdos que procedan.
- d) Velar por el buen régimen del edificio, sus instalaciones y servicios, y hacer a estos efectos las oportunas advertencias y apercibimientos.

e) Beharrezko aurretiazko denborarekin prestatzea, eta aurreikusitako gastuen plana Batzordeari jakinaraztea haien gainean erabaki dezan, gastuei aurre egiteko bitartekoen berri ere emanda.

f) Eraikina, instalazioak eta zerbitzuak zaintzea, eta beharrezko konponketak eta neurriak emakidadun enpresari berehala jakinarazita.

g) Tolosako Udalak edo zerbitzua ematen duen enpresak hartutako erabakiak eta akordioak betetzea, lanei dagokienez.

h) Dagozkion ordainketak egitea eta zenbatekoak kobratzea.

i) Pertsona erabiltzaileei sortutako gastuak kobratzea eraikina, instalazioak eta zerbitzuak modu zuzenean zaintzea, gordetzea eta garbitzea bermatzeko.

j) Azpi komunitateak, zerbitzua ematen duen enpresak edo udalak ematen dituen guztiak.

24. artikulua. Pertsona erabiltzaileen eskubideak administrazioaren lanarekiko.

Eraikineko pertsona erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte azpi komunitatearen administrazioaren aurrean:

1. Urteko kontuak argitzea, ordaindu beharreko hileroko kuotaren zenbatekoa justifikatzen dutenak.

2. Kexak, erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztea.

3. Bezeroaren arretarako telefonoa izatea higiezinako zenbait elementu erabiltzeko zailtasunak baldin badaude.

4. Eraikina ohi bezala erabiltzeari eragingo dion edozein gertaeraren edo ekintzen berri jasotzeko eskubidea.

5. Pertsona erabiltzaileen azpi komunitatearen ohiz kanpoko bilera deitzea.

6. Zerbitzua ematen duen enpresaren aurrean, edo hala badagokio, Tolosako Udalaren aurrean, pertsona erabiltzaileek mantentze-lanen, erabilera arauen, zerbitzuen prestazioen eta gainerako irizpideak aldatzeko edo horietan esku hartzeko proposamenak egitea.

25. artikulua. Araubide ekonomikoa.

Azpi komunitateko kide guztiak eraikinaren gastu komunak ordaintzeko bakoitzak bere kuotaren arabera ordaintzeko bete-beharra dute, eta horiek martxan jartzen direnetik eskatu ahalko dira.

Eraikinaren betebeharrei eta gastuei erantzun ahal izateko, administrazioak batzordeari diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu balioetsia aurkeztuko dio urtero; horren arabera, pertsona erabiltzaileek aurretiaz ordainduko dituzte hiruhilekoak edo seihilekoak, Batzordeak adosten duena betez eta funts-horniduraren izenean, finkatutako kuota ordainduko dute. Guztiak Batzordeak finkatutako funts-horniduraren ordainketa banku batean helbideratuta izan beharko dute.

Urte naturalari dagokion ekitaldi ekonomikoa ixten denetik hiru hilabeteko epean administrazioak batzordeari diru-sarreraren eta gastuen likidazioa aurkeztuko dio, baita hurrengo ekitaldirako aurrekontua ere.

Kuotak eta likidazioak administrazioaren jakinarazpenaren hurrengo hogeit egunen barruan ordainduko dira; hala ere, kobratzeko beharrezko neurriak hartu ahalko dira. bide judizialera jo behar izanez gero, sortuko diren gastu guztiak pertsona berankorrek ordaindu beharko ditu.

e) Preparar con la debida antelación y someter a la Junta el plan de gastos previsibles, proponiendo los medios necesarios para hacer frente a los mismos.

f) Atender a la conservación y entretenimiento del edificio, sus instalaciones y servicios, dando inmediata cuenta a la empresa concesionaria de las reparaciones y medidas que resulten necesarias.

g) Ejecutar las decisiones y acuerdos adoptados por el Ayuntamiento de Tolosa o a la concesionaria en materia de obras.

h) Efectuar los pagos y realizar los cobros que sean procedentes.

i) Girar al cobro a las personas usuarias los oportunos gastos generados en orden a garantizar el adecuado mantenimiento, conservación y limpieza del inmueble, sus instalaciones y servicios.

j) Todas aquellas que se le confieran por la Sub-comunidad, por la concesionaria o por el Ayuntamiento.

Artículo 24. Derechos de las personas usuarias respecto de la labor de la Administración.

Las personas usuarias del edificio ostentarán frente a la Administración de la Sub-Comunidad los siguientes derechos:

1. A la rendición de cuentas anuales en la que se justifique el importe de la cuota mensual a pagar.

2. A la presentación de quejas, reclamaciones o sugerencias.

3. A disponer de un teléfono de atención al cliente al que dirigirse ante dificultades en el uso de los elementos del inmueble.

4. A ser informado de cualquier suceso o acto que afecte o altere el uso normal del edificio.

5. A la convocatoria de reunión extraordinaria de la Sub-Comunidad de personas usuarias.

6. A tramitar ante la empresa concesionaria o, en su caso, ante el Ayuntamiento de Tolosa las propuestas de las personas usuarias sobre modificación o intervención en los criterios de mantenimiento, normas de uso, prestación de servicios y similares.

Artículo 25. Régimen económico.

Todos los miembros de la sub-comunidad están obligados a contribuir en proporción a sus respectivas cuotas al sostenimiento de los gastos comunes del edificio, siendo éstos exigibles desde la entrada en funcionamiento del mismo.

Con el fin de poder ser atendidas las obligaciones y los gastos del edificio, la Administración formulará y presentará a la Junta anualmente un presupuesto estimativo de ingresos y gastos, según el cual las personas usuarias pagarán por trimestres o semestres adelantados, conforme acuerde la Junta, y a título de provisión de fondos, la cuota fijada. Todas ellas deberán de tener domiciliado en una entidad bancaria el pago de la provisión de fondos fijada en la Junta.

En el plazo de 3 meses desde el cierre del ejercicio económico que corresponderá al año natural, la Administración presentará a la Junta, la liquidación de ingresos y gastos así como el presupuesto para el ejercicio entrante.

Las cuotas y liquidaciones serán abonadas, dentro del plazo de veinte días siguientes a la notificación de la Administración, sin perjuicio de adoptar las medidas necesarias para su cobro; si hubiera de acudir a la vía judicial, se repercutirá sobre la persona morosa todos los gastos que se originen.

IX. KAPITULUA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

26. artikulua.

Honako hauek falta arintzat hartuko dira:

a) Apartamentuko, etxebizitza komunitarioetako eta gune komunetako altzariak eta tresnak hondatzea, modu desegokian erabiltzeagatik.

b) Beste pertsona egoiliarrek edo komunitateko kideak eta gainerako langileak ez errespetatzea, iraintzea edo deskalifikatzea.

c) Intimitate pertsonala urratzea.

d) Ostatu zerbitzuaren jarraipenaren arduradunek hartutako erabakiak ez errespetatzea.

e) Objektu pertsonalak ez zaintzea.

f) Gune komunetan modu lotsagabea edo errespetu gabe jokatzea.

g) Geletan ordena eta garbitasun eza, eta lan komunetan ez parte hartzea.

h) Erretzeari buruz xedatutakoa ez betetzea.

27. artikulua. *Honako hauek falta larritzat joko dira:*

a) Falta arin gisa hartutakoak behin eta berriz urratzea. Hiru falta arin egitea behin eta berriz urratze gisa ulertuko da.

b) Apartamentuaren erabiltzaile izendatu ez direnek gaua pasatzea baimenik gabe.

c) Gainerako pertsonen osotasun fisikoa edo mentala arriskuan jartzen duen zabarkeria.

d) Jarrera desegokiak eta elkarbizitza txarrekoak.

e) Alkoholdun edariak (salbuespenak izan ezik), estupefazianteak eta substantzia psikotropikoak kontsumitzea eta/edo izatea, baldin eta debekatuta badaude.

f) Egoiliarren arteko elkarbizitza modu larrian aldarazten duen beste edozein kausa.

g) Higiezina edo egoiliarrek arriskuan jarriko dituzten datuak ezkatzea.

h) Ondasunak edo beste edozein objektu lapurtzea, dela instalazioarena, dela langileena, dela egoiliarrena.

i) Tasak ordaintzerakoan justifikaziorik gabe atzeratzea.

28. artikulua. *Honako hauek falta oso larritzat joko dira:*

a) Hiru falta larri edo gehiago egitea.

b) Etxebizitzan bizi diren beste pertsonak, Komunitateko kideak edo gainerako langileak fisikoki erasotzea edo tratu txarrek ematea.

c) Aitorpenak faltsutzea edo ezkatzea, edo datu zehaztugabeak ematea pertsona erabiltzaileari dagokionez, onurak lortzeko.

29. artikulua. *Zigorrak.*

a) Falta arinak ahozko edo idatzizko ohartarazpenekin zigortuko dira.

b) Falta arinak kanporatze ohartarazpenekin zigortuko dira; kanporatzea ez da hiru hilabete baino gehiagokoa izango.

CAPITULO IX

REGIMEN DISCIPLINARIO

Artículo 26.

Se considerarán faltas leves:

a) Causar desperfectos por negligente uso de enseres y mobiliario del apartamento, habitación la vivienda comunitaria y zonas comunes.

b) La descalificación, insulto o falta de respeto hacia otras personas residentes, o miembros de la comunidad y demás personal.

c) La violación de la intimidad personal.

d) Falta de respeto hacia las decisiones tomadas por los responsables del seguimiento del servicio de alojamiento.

e) Falta de cuidado en sus objetos personales.

f) El comportamiento indecoroso o irrespetuoso en los lugares comunes.

g) Falta de orden y limpieza de las estancias, así como falta de colaboración en las tareas comunes.

h) Incumplimiento de lo especificado respecto al consumo de tabaco.

Artículo 27. *Se consideran faltas graves:*

a) El incumplimiento reiterado de las causas consideradas como faltas leves. Se considera reiteración la comisión de tres faltas leves.

b) La pernociación no autorizada de personas no designadas como usuarias del apartamento.

c) La desatención que ponga en riesgo la integridad física o mental de las demás personas.

d) Los comportamientos indecorosos y acciones de mala vecindad.

e) Consumo y/o tenencia de bebidas alcohólicas (salvo excepciones), estupefacientes y sustancias psicotrópicas, en caso de que estén prohibidas.

f) Cualesquiera otras que alteren gravemente la convivencia entre los residentes.

g) La ocultación de datos que pongan en peligro el inmueble o sus residentes.

h) La sustracción de bienes o cualquier clase de objetos, propiedad de la instalación, del personal o de los y las residentes.

i) La demora injustificada en el pago de la tasa.

Artículo 28. *Se consideran faltas muy graves:*

a) La reiteración de tres o más faltas graves.

b) La agresión física o malos tratos hacia otras personas residentes en la vivienda, miembros de la Comunidad y demás personal.

c) Falsear u ocultar declaraciones o aportar datos inexactos o relevantes en relación con la condición de persona usuaria para obtener beneficio.

Artículo 29. *Sanciones.*

a) Las faltas leves serán sancionadas con amonestaciones verbales o escritas.

b) Las faltas graves se sancionarán con el apercibimiento de expulsión o la expulsión por un tiempo no superior a tres meses.

c) Falta oso arinak etxebizitzatik hilabete eta sei hilabete artean kanporatzearekin zigortuko dira; hala ere, kasu batzuetan behin betiko kaleratzea izan daiteke zigorra.

Hala ere, eragindako kalteak konpontzeko betebeharra ere izango dute zigortuek.

Falta arinak egiteagatik zigorrak ezartzeko ez da prozedura martxan jarri behar, errua egotzi zaion pertsonaren entzualdia izan ezik; horretarako hamar eguneko epea egongo da.

X. KAPITULUA

ERREGISTROAN IZENA EMATEA

30. artikulua.

Tolosako Udaleko Ostatu Zerbitzuen Eskatzaileen Erregistroa sortu da. Erregistroak hiru atal izango ditu.

- a) Gela baterako eskubidea izateko erregimeneko apartamentuak eskatzen dituzten pertsonen erregistroa.
- b) Alokairuko erregimeneko apartamentuak eskatzen dituzten pertsonen erregistroa.
- c) Etxebizitza Komunitarioko plazak eskatzen dituzten pertsonen erregistroa.

31. artikulua.

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko arduradunak izango du erregistroaren ardura.

32. artikulua.

Erregistroak nahitaez honako datu hauek jaso behar ditu:

- Erregistro zenbakia.
- Erregistro-data.
- Pertsona eskatzaileen izena, abizenak eta helbidea.
- Eskatu nahi den zerbitzua, eta hala badagokio, emandakoa.
- Erregistroko ardura duen pertsonak egokitzat jotzen dituen guztiak.

33. artikulua. *Erregistroan baja ematea.*

Erregistroko arduradunak bajaran emango ditu pertsona eskatzaileak baldin eta emandako datuek edo arduradunak berak ofizioz lortutakoek izena emateko eskakizunak betetzen ez badituzte.

Erregistroan baja emango du, halaber, apartamentu edo gela bat esleitu arren espresuki edo isilbidez uko egiten dionean; uko egiten denetik zenbatzen hasita, bi urtez ezingo du berriz erregistroan izena eman.

34. artikulua. *Datuak babestea.*

Erregistroak Datu Pertsonalak Babesteari Buruzko 15/1999 Lege Organikoaren eskakizunak bete behar ditu, baita Fitxategi Automatizatuen Segurtasun Neurrien Erregelamenduaren ere, baldin eta datu pertsonalak badituzte; azken hori ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak onartu zuen.

c) Las faltas muy graves serán sancionadas con la expulsión de la vivienda por un período de uno a seis meses, pudiéndose llegar en determinados casos hasta la expulsión definitiva.

Todo ello sin perjuicio de la obligación de reparar los daños causados.

Para la imposición de sanciones por la comisión de faltas leves no será necesario llevar a cabo procedimiento, salvo la audiencia a la persona inculpada, que se dará en un plazo de diez días.

CAPITULO X

INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO

Artículo 30.

Se creará el Registro de Solicitantes de Servicios de Alojamiento del Ayuntamiento de Tolosa. Este registro constará de tres secciones:

- a) Registro de solicitantes de apartamentos en régimen de derecho de habitación.
- b) Registro de solicitantes de apartamentos en régimen de arrendamiento.
- c) Registro de solicitantes de las plazas de la Vivienda Comunitaria.

Artículo 31.

La persona encargada del Registro será la responsable del Departamento de Servicios Sociales.

Artículo 32.

Los asientos que deben constar obligatoriamente en el Registro serán los siguientes:

- Número de registro.
- Fecha de registro.
- Nombre, apellidos y domicilio de las personas solicitantes.
- Recurso solicitado y, en su caso, concedido.
- Todos aquellos datos que la persona encargada del Registro estime necesarios.

Artículo 33. Baja del Registro.

La encargada del Registro dará de baja del mismo a las personas solicitantes cuando de los datos facilitados o los obtenidos por ella de oficio resulte que dejan de cumplir con los requisitos exigidos para la inscripción.

También se dará de baja del Registro a quien habiendo resultado adjudicatario de un apartamento o habitación, renuncien expresa o tácitamente al mismo, no pudiendo darse de alta nuevamente en el Registro durante dos años a contar desde la renuncia.

Artículo 34. Protección de Datos.

El Registro cumplirá con los requisitos de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal y del Reglamento de Medidas de Seguridad de Ficheros Automatizados que contengan datos de Carácter Personal, aprobado por Real Decreto 994/1999, de 11 de junio.

XI. KAPITULUA

EBALUAZIO, ONARPEN ETA JARRAIPEN BATZORDEA

35. artikulua.

Ebaluazio, Onarpen eta Jarraipen Batzordea eratuko da eta honako hauek osatuko dute:

— Alkatea edo horren ordezkari jaso duen zinegotzia; Presidentetzako titular gisa jardungo du.

— Iurreamendi egoitzako zuzendaritza.

— Osasun eta Gizarte Zerbitzu Departamentuko zuzendaritza.

— Zerbitzua ematen duen enpresaren ordezkari bat.

— Gizarte Zerbitzuen Departamentuko administrari bat, idazkari-lanetan jardungo duena.

36. artikulua.

Ebaluazio, Onarpen eta Jarraipen Batzordearen funtzioak honako hauek izango dira:

— Esleipen prozedura hastea eta prozesu izapideetarako beharrezko erabakiak hartzea, alkatetzaren pertsona esleipendun zerranda-proposamena barne.

— Arau honetan araututako ostatuak eta zerbitzuak kudeatzeko beharrezko proposamenak adostea.

— Zigor larrien edo oso larrien berri ematea alkatetzak ezartzea erabaki baino lehen.

— Falta larriak zigortzea; prozedurak martxan jartzea ez da beharrezkoa izango, errua egotzi zaion pertsonaren entzunaldia izan ezik; horretarako hamar eguneko epea egongo da.

37. artikulua. Funtzionamendua.

Batzorde horren funtzionamenduari Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen arabera organo kolegiatuak arautzen dituzten arauak aplikatuko zaizkio.

XII. KAPITULUA

ESLEIPEN PROZEDURA

38. artikulua. Apartamentuak esleitzen hasteko deialdia.

1. Hautaketa prozesua udal honen deialdiarekin hasiko da

2. Aipatutako deialdia zerbitzua emango duen enpresan, Tolosako Udalean eta Tolosako Udaleko webgunean plazaratuko da; horrez gain, Tolosako Udalak ohiz erabiltzen dituen komunikabideetan ere argitaratuko da, eta gutxienez alderdi hauek zehaztuko ditu:

— Esleitu beharreko apartamentu kopurua, alokairuan eta gela-eskubidean zenbat egongo diren zehaztuta.

— Noiz arte hartuko diren aintzat Eskatzailearen Erregistroan izena emateko eskariak.

— Apartamentuen edo eskainitako zerbitzuen prezioa.

3. Baldintza zehatzak.

Deialdi bakoitzean, baldintza orokorrak betez, haiek gehiago mugatzen dituzten baldintza espezifikokoak eskatu ahalko dira.

CAPITULO XI

DE LA COMISIÓN DE EVALUACIÓN, ADMISIÓN Y SEGUIMIENTO

Artículo 35.

Se constituirá una Comisión de Evaluación, Admisión y Seguimiento formado por:

— El/la Alcalde o concejal/a en quien delegue, que actuará como titular de la Presidencia.

— La dirección de la Residencia Iurreamendi.

— La jefatura del departamento de Salud y Servicios Sociales.

— Un/una representante de la empresa concesionaria.

— Un/una administrativo/a del departamento de Servicios Sociales, que actuará como secretario/a.

Artículo 36.

Las funciones de la Comisión de Evaluación, Admisión y Seguimiento serán las siguientes:

— Dar inicio al procedimiento de adjudicación y adoptar los acuerdos necesarios en los trámites del proceso, incluida la propuesta a la alcaldía de la relación de personas adjudicatarias.

— Acordar las propuestas que sean necesarias para la gestión de los alojamientos y servicios regulados en este reglamento.

— Informar de las sanciones graves o muy graves antes de que acuerde su imposición la alcaldía.

— Sancionar las faltas leves, no siendo necesario llevar a cabo procedimiento alguno, salvo la audiencia de la persona inculpada por un plazo de diez días.

Artículo 37. Funcionamiento.

A esta Comisión le serán aplicables en su funcionamiento las normas que regulan los órganos colegiados en la Ley 30/1992, reguladora del Procedimiento Administrativo Común.

CAPITULO XII

PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

Artículo 38. Convocatoria para el Inicio de la Adjudicación de los apartamentos.

1. El proceso de selección se iniciará mediante convocatoria del Ayuntamiento.

2. La citada convocatoria será expuesta en las dependencias de la empresa concesionaria, Ayuntamiento de Tolosa y en la página Web del Ayuntamiento de Tolosa, anunciándose su publicación en los medios de comunicación habitualmente utilizados por el Ayuntamiento de Tolosa.

— Número de apartamentos a adjudicar, especificando cuantos serán en régimen de derecho de habitación y cuantos en arrendamiento.

— Fecha hasta la cual serán tenidas en cuenta las solicitudes de inscripción en el Registro de Solicitantes.

— Precio de los apartamentos o recursos ofertados.

3. Requisitos específicos.

Se podrá exigir en cada convocatoria requisitos específicos que, cumpliendo los generales, los delimiten más concretamente.

39. artikulua. Apartamentuak esleitzeko modua.

Apartamentuen esleipena honela egingo da:

Apartamentuen bi modalitateak zerrenda bereizitan esleitu dira, eta erregistroan aurkeztutako eskarietan finkatutako irizpidea baliatuz, edo dagokion deialdiaren ondoriozkoa.

1. Akatsak zuzendu behar dituzten eskatzaileen zerrendak argitaratzea.

Deialdiaren ondoren, akatsak zuzendu behar dituzten eskatzaileen zerrendak osatuko dira, eta zerbitzua emango duen enpresan, Tolosako Udalean eta azken horren webgunean argitaratuko dira; aipatutako akatsak zuzentzeko hamar egun naturaleko epea egongo da.

2. Onartutako eta baztertutako zerrendak onartzea:

a) Akatsak zuzentzeko epea bukatu ondoren, onartutako eta baztertutako zerrendak onartuko dira, Erregistroan izena zuzen eman zuten eskatzaileak barne.

b) Zerrendak zerbitzua emango duen enpresan jarriko dira ikusgai, baita Tolosako Udalean eta azken horren webgunean ere; horrez gain, Tolosako Udalak ohiz erabiltzen dituen komunikabideetan argitaratuko dira.

c) Zerrenden onarpenaren aurka erreklamazioa aurkeztu ahalko da Udaletxean 15 egun naturaleko epean, Gipuzkoan gehien saltzen den egunkarian iragarkia argitaratu eta hurrengo egunean.

3. Apartamentuak hartzeko eskariak hautatzea.

Ebaluazio, Onarpen eta Jarraipen Batzordeak hautatuko ditu eskariak, dagokion baremoa aplikatuta. Eskatzaileek lortutako puntuazioa islatuko duen zerrenda osatuko da, eta apartamentuak puntuazio handiena lortu duenetik txikienerako ordenan esleitu dira.

Ebaluazio, Onarpen eta Jarraipen Batzordeak proposamena dagokion erakundeari helaraziko dio, eta horrek hautatutakoekin behin behinean apartamentuak jasotzea baimenduko du, Ebazpen bidez.

Lortutako puntuen arabera, hautatutakoekin kontratua hamabost eguneko epean aukeratu eta sinatu beharko dute, dagokion jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Esleipena formalizatzearekin lotutako dokumentu mota guztiak erregistro horretan jasotako izen-ematean titular gisa azaltzen direnekin bakarrik egingo dira.

4. Etxebizitza hutsak esleitzea eta itxaron zerrenda.

Erabiltzaileak uko egiten duenean edo beste arrazoi bat dela medio apartamenturen bat hutsik geratzen denean, erregistratuta dagoen eta puntuazio altuena duen eskatzaileari emango zaio.

5. Plaza jaso ez duten eskatzaileek haien txostena berri-kusteko eskatu ahalko dute, behar bezala frogatuta, egoera pertsonalen aldaketak lortutako balioespenean alda dezakeenean.

40. artikulua. Etxebizitza komunitarioko plazak esleitzea.

Etxebizitza komunitarioko plazak modu zuzenean esleitu dira, Ebaluazio, Onarpen eta Jarraipen Batzordearen proposamenari eta Alkatetzaren ebazpenari jarraiki. Proposamena modu zuzenean justifikatuta eta neurtuta egongo da, Erregelamendu honetan finkatutako irizpideekin edo udalak onartutako beste batzuekin.

Artículo 39. Modo de adjudicación de los apartamentos.

Las adjudicaciones de los apartamentos se efectuarán de la siguiente manera:

Las dos modalidades de apartamentos se adjudicarán, en listas separadas y mediante la aplicación del baremo establecido a las solicitudes presentadas en el Registro o como consecuencia de la correspondiente convocatoria.

1. Publicación de listas de solicitantes que requieren subsanación.

Después de la convocatoria, se elaborarán las listas de solicitantes que requieren subsanación, y se expondrán en las dependencias de la empresa concesionaria, en el Ayuntamiento de Tolosa y en su Web, dándose plazo de diez días naturales para efectuar las referidas subsanaciones.

2. Aprobación de listas de admitidos y excluidos:

a) Terminado el plazo para las subsanaciones, se aprobarán las listas de personas admitidas y excluidas, incluidas las solicitantes que pudieran estar debidamente inscritas en el Registro.

b) Las listas se expondrán en las dependencias de la concesionaria, en el Ayuntamiento de Tolosa y en su Web, anunciándose su publicación en el periódico de mayor difusión de Gipuzkoa.

c) Contra la aprobación de las listas podrá interponerse reclamación ante el Ayuntamiento en el plazo de 15 días naturales a partir del día siguiente al del anuncio en el periódico de mayor difusión de Gipuzkoa.

3. Selección de solicitudes para ocupar los apartamentos.

Se realizará por la Comisión de Evaluación, Admisión y Seguimiento, mediante la aplicación del correspondiente baremo. Se confeccionará una lista con las puntuaciones obtenidas por las personas solicitantes y la adjudicación de los apartamentos se hará en orden descendente.

La Comisión de Evaluación, Admisión y Seguimiento elevará la propuesta al órgano correspondiente, quien autorizará el ingreso provisional de las personas seleccionadas mediante Resolución.

En orden a la puntuación obtenida las personas seleccionadas tendrán que elegir y formalizar el contrato en el plazo de quince días a contar desde el día siguiente al de la oportuna notificación.

Todo tipo de documentos relacionados con la formalización de la adjudicación se realizarán exclusivamente con las personas que figuren como titulares en la solicitud registrada en el presente Registro.

4. Adjudicación de viviendas vacantes y la lista de espera.

Cuando por renuncia del usuario o cualquier otra causa quedase algún apartamento vacante, se adjudicará la misma al solicitante que, encontrándose registrado, ostente la mayor puntuación.

5. Las personas solicitantes a los que no se les hubiera asignado plaza podrán instar, acreditándolo convenientemente, la revisión de su expediente cuando la variación de sus circunstancias personales pudiera modificar la valoración efectuada.

Artículo 40. Adjudicación de las plazas de la vivienda comunitaria.

La adjudicación de las plazas de la vivienda comunitaria se hará de forma directa, a propuesta de la Comisión de Evaluación, Admisión y Seguimiento y por resolución de Alcaldía. La propuesta deberá estar debidamente justificada y baremada, con los criterios establecidos en este Reglamento o por cualesquiera otros aprobados por el Ayuntamiento.

41. artikulua. Ekipamenduetara sartzea.

1. Sartzeko aukera onartu ondoren, erabiltzaileak esleitu-tako ekipamendura bertaratu beharko du, jakinarazitako egunean edo gehienez adostutako sarrera-datatik bi egunera.

2. Denbora-tarte horretan ez bada ekipamendura sartzen erabiltzaileari egotz dakiokkeen kausa bat dela medio, hiru egun gehiago izango ditu; hiru egun horiek plaza gordetzeko egun gisa hartuko dira, eta pertsona erabiltzaileak plaza gordetzeari dagokion prezioaren zati bat ordaindu beharko du». Bost egun igaro ondoren ez bada kausa justifikatuz bertaratu, ulertuko da erabiltzaileak izapidetutako txostenetik eratorritako eskubideei uko egiten diela.

3. Finkatutako egunean edo tartean sartzea galarazten duten egoera berezia gertatuz gero, pertsona interesatuek data aldatzeko edo sartzeko epea luzatzeko eskatu ahalko dute, eta Ebaluazio, Onarpen eta Jarraipen Batzordearekin data edo epe berria adostu. Hala ere, egoerak horrela gomendatuz gero, plaza hori eskatzaileen zerrendako beste pertsona bati eman ahalko zaio, eta lehen pertsona eskatzailea hutsik geratzen den beste plaza baten zain geratuko da.

4. Sartu baino lehen, edo edozein kasutan, egun horretan bertan, Zentroko arduradunak pertsona erabiltzailea izango denari zerbitzuaren funtzionamenduaren berri emango dio, erabiltzaileak ulertzeko moduko hizkeran eta moduan. Sartuz gero, arauak onartzen direla ulertuko da.

42. artikulua. Egoitza ekipamendua lekuz aldatzea.

Apartamentuetan edo etxebizitza komunitarioetan sartu ondoren ezintasunen bat edo mendekotasun maila igotzea gertatzen bada, pertsona beste bere beharretara hobeto egokitzen den egoitza-zerbitzu batera lekualdatzeko izapideak hasiko dira.

XIII. KAPITULUA

ERREGIMEN JURIDIKOA ETA LEGEDI APLIKAGARRIA

43. artikulua.

Erregelamendu honetan aurreikusitako zerbitzuak izaera publikokoak direla aintzat hartuta, edozein modalitateko tutoretzapeko apartamentuak barne, erregimen juridiko aplikagarria erregelamendu honetan, Eskatzaileen Erregistroan, onartzen diren baldintzen pleguetan edo oinarrietan jasotakoa izango da eta honako administrazio araudi hau bakarrik eta eskusiboki aplikatu ahalko da:

— apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubideen Oinarriei buruzkoa.

— apirilaren 18ko 781/1986 Errege Legegintzako Dekretua, Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu batgina onartzen duena.

— 1.372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena.

— Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.

— 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratua.

— 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridikoa eta administrazio prozedura erkidea arautzen dituen.

Artículo 41. Ingresos en los equipamientos.

1. Aprobado el ingreso, la persona usuaria deberá presentarse en el equipamiento asignado en la fecha indicada o en el plazo máximo de 2 días desde la fecha de ingreso acordada.

2. De no producirse el ingreso en dicho plazo por causa imputable a la persona usuaria, éste dispondrá de 3 días más para incorporarse, computándose estos 3 días como de reserva de plaza, y debiendo la persona usuaria abonar la parte correspondiente a la situación de «reserva de plaza». Si pasados 5 días no se hubiese incorporado sin causa justificada, se entenderá que renuncia a los derechos derivados del expediente tramitado.

3. Cuando concurren circunstancias especiales que impidan el ingreso en la fecha o plazo establecido, las personas interesadas podrán solicitar cambio de fecha o ampliación del plazo de incorporación, fijando nueva fecha o plazo de acuerdo con la comisión de evaluación, admisión y seguimiento. No obstante, si las circunstancias así lo aconsejan, se podrá adjudicar dicha plaza a otra persona de la lista de demandantes, quedando la primera persona solicitante a la espera de otra plaza vacante.

4. Con carácter previo al ingreso, o en todo caso el mismo día, la responsable del Centro informará a la futura persona usuaria de las normas que rigen el funcionamiento del servicio, en un lenguaje y de una forma comprensible para la persona. El ingreso conllevará la aceptación de dichas normas.

Artículo 42. Traslado de equipamiento residencial.

Si con posterioridad al ingreso en los apartamentos o vivienda comunitaria concurre una posible incapacitación o aumento de su grado y nivel de dependencia, se iniciarán los trámites oportunos para su traslado a otro recurso residencial más idóneo con relación a los servicios que presta y las necesidades de la persona.

CAPITULO XIII

REGIMEN JURÍDICO Y LEGISLACIÓN APLICABLE

Artículo 43.

Teniendo en cuenta que los servicios previstos en este reglamento, incluida la cesión de apartamentos polivalentes en cualquiera de las modalidades, es de naturaleza pública, el régimen jurídico aplicable será el establecido en este Reglamento, en el del Registro de Solicitantes, en las bases o Pliegos de condiciones que en su caso se aprueben, y será aplicable única y exclusivamente la siguiente normativa administrativa:

— Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

— Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local.

— Real Decreto 1.372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

— Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

— Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

— Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

— 10/82 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arauzkotzeko dena.

— Soilik modu osagarrian, pertsona erabiltzaileen azpi komunitatearen funtzionamenduan jabetza horizontalari dagokion araudia aplikatu beharko da.

Azken xedapenetatik lehenengoa.

Alkateari Araudi hau aplikatzeko eta garatzeko adina arau emateko gaitasuna eman zaio.

Azken xedapenetatik bigarrena.

Araudi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Tolosa, 2011ko otsailaren 1a.—Alkatea. (1104)

— Ley 10/82, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

— Únicamente y de forma supletoria, en el funcionamiento de la Sub-Comunidad de personas usuarias será aplicable la normativa correspondiente a la propiedad horizontal.

Disposición Final Primera.

Se faculta al Alcalde para dictar cuantas normas de aplicación y desarrollo del presente Reglamento sean necesarias.

Disposición Final Segunda.

Este Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Tolosa, a 1 de febrero de 2011.—El Alcalde. (1104)